

SORTU ote da esperantza?

Inoizkorik urrunen joan dira ilegalizaturik ia zortzi urte eman duten ezker abertzaleko horiek. Astelehenean, jendaurreko agerraldi publikoa egin zuten R. Etxeberriak eta I. Iruin abokatuak. Oso garbi hitz egin zuten, batez ere euskaldun gehienoi interesatzen zaigun horretaz, indarkeriarekiko harremanaz, alegia. Derradan berriro: klarki esan zuten askok entzun nahi genuen hura, bortizkeria errefuxatu egingo dutela, baita ETArene ere, baldin balego. Ondo, egiari zor. Pittin bat luzeago jo izan balute eta, bide batez, talde %armatuari+pikutara joan zedin eskatu izan baliote, edo desagertzeko exijitu baliote, orduantxe bai, orduantxe bete-betean sinistuko geniekeen, asmotan eta egintzetan. Beraz, itxaropena pizturik dago. Ez da nahiko, alabaina.

Ez naiz legeztatzeari buruz ari. Izan ere, nago legeztatze aldera trabarik ez izateko proposamen sendoa eta adimenezkoa burutu dutela, ez-legalizatzeko arrazoiek bide meharra eta ezinezko izan dezaten. Badakite zeintzuk diren legearen zedarriak, mugarriak eta aldarriak. Ondo jakin ere. Iruin abokatu donostiarra horretan, maisu Juan baino maisuago. Baina ez dut ikuspuntu juridikorik eman nahi. Akaso, auzi horretan, gauza bakarra esan: epaileek hartzen duten erabakia hartzen dutela, ondo, zehatz, fin, legeari fidel eta sakon azal dezatela zeintzuk diren arrazoi juridikoak barru edo kanpo Sortu uzteko, ezen ez baita inondik ere onargarri izango bulkada edo kutsu politikorik dukeen ebazpen oro. Sortuk emandako estatutuetan orbain zikinik egon ezean, legearen barruan kokatu beharko dute epaileek. Engaina gaitzaketela? Bai, eta ez litzateke lehenengoa izango. Baina zer da garrantzizkoagoa, berme juridikoak eta justizia garantista bat gailendu dadila edo talde batek legeari bai baina aplikazioari iruzur egitea? Nik argi daukat. Gainera, legeztatu ondoren, iruzur nabarmenik eginez gero, legez kanpo jar lezakete berriro ere majistratuek.

Inporta zaidana zera da: emandako urratsa atzeraezina izan dadila. Emandako aurrerapausoan sinistu dezatela; bakezko etorkizun politiko horretan apostu zindoa egin dezatela; indarkeriari egindako ukazioak pauso gehiago eman ditzala. Inporta zaidana zera da, eurek guztiek bide honi euts diezaiotela, irmo. Inertzia gogaikarriei men egin barik. Inoiz ez daitezela lehengo modu jazar eta ezarleetara itzul. Inporta zait Sorturen estatutuetan murgil eta aplika daitezten alderdi horren babesean egon daitezkeen guztiak, Atik Zra, buruzagitik soldadu soileraino. Izan ere, militantzia erroldatua izango dute, alderdiaren printzipioak bere egingo dituen. *Ekintza terroristak piztu, sustatu edo lejitimatzeko dituztenak* errefuxatzen dituzte, eta *berauen estaldura ideologiko guztiaren* kontra dago. Alderdien Legearen 9. artikulua dioena bere gain hartu du Sortuk, eta gainera *ekintza terroristak omendu edo laudatzea* espreski errefuxatzen du, hala nola *intimidazio edota gizarte-koakzio edo desordena* arbuizatzen ere heltzen da. Hortaz, sakoneko aldaketak daude. Baina praktikara eramatea da gakoa. Eta hona dator zalantza edo eszeptizismoa, txiki eta handi, kontsumitzailearen arabera neurrian.

Ez da gutxi fido ez dena. Hori ere hartu behar dute bere gain ezker abertzale horrek. Hamaika urte dira %bakezko bideak+aipatzen dituztela euren etorkizuneko jardunaz aritzen diren bakoitzean, Lizarra-Garaziko garaietatik, hain zuzen. Gero Anoetako deklarazio ponposo bezain hutsala etorri zen. Loiolako su-etenean ere, hitz taumaturjiko horiek hitzetik hortzera; alferrik eta debalde, T4ko atentatuak sortutako bi hildakoen aurrean, eta Madrilgo suntsipen haren ondotik ETAk hildako beste bederlatz pertsonen aurrean, zer demontre esan zuen ezker abertzaleak? 2009ko ekainean, Eduardo Puelleses hilotza artean epel zegoelarik, nori eta gobernari egotzi zion hilketaren errua oraindik orain ETArene indarkeria errefuxatzen duen talde horrek, baldin balego, noski.

Urte eskas batera, Jean Sergei Nerinen hilketaren aurrean, gupidazko hitzik ez. Hortaz, orain indarkeria arbuiatzen dutela esan berri dutenean sinistu behar diegu? Noiztik? Zein izan da odolezko erreka hori zeharkatzeko, aldenik alde, bultzada erabakiorra? Zergatik ez zen orain dela hamar urte gertatu? Eta zergatik ez orain dela hogeita hamar urte, ia kristo guztiak Rubikon hura atzean utzi zuenean? Ba al dakite zenbateko eta nolako sufrikarioak, oinazeak, malkoak eta bakardadeak ekidin zitezkeen han-hemenka, 1977an gehienek bezalatsu . edo antzera- ETaren indarkeriaren aurrean orain duten jarrerari eutsi izan baliote? Eta jada, gaizto antzean, inoiz-inork planteatu ote du Euskal Herria independentea izan zitekeela indarkeriarik gabeko bideak erabili izan balira? Gainontzeko alderdi abertzaleek ez ote dute zer leporaturik kontu honetan orain ezker abertzale horri? Bakoitza bere esanaren eta eginaren gatibu da. Bakoitzak jakin badaki zer egin duen. Eta noiz. Hau oso inportantea da: noiz demontre eman duzun urratsa.

Azkena: askotan esan izan dut legalizazioaren ardura ezker abertzale horren esku dagoela, ez beste. Halaxe segitzen dut pentsetan. Ez dago miraririk, zorionez, ez politikan ez epaitegietan. Alabaina, benetako legalizazioa baino, zin-zinezko legitimitateari deritzot nik garrantzitsuagoa, sozial ikuspuntutik, hiritar gisara, gizatiartasun aldetik. Eta hortxe dute eginkizun franko. Gainontzeko guztiokin herrigintzan aritu nahi badute, hitza eta ez koakzio bortitza erabili nahi dutela argiro erakus dezatela. Demokraziaren arauak onartu behar dituzte, esate baterako, haiek ez beste guztiak presoen argazkiak udaletxeko balkoitik kentzeko agindua eman eta aprobaten badute, bada kendu egin beharko dira, inori mehatxurik bota gabe; areago, eurek berek kendu beharko dituzte, eurek jarri baitzituzten. Demokrazia ez da errez betetzen, kunplitzen; askotan gogoz kontra aritu behar. Garestia da demokrazian bizitzea, eta, sarritan, ez da norberaren gogokoa derrigorrez egiten, gehienona baizik. Ongi etorri, Sortu nahi badute behin betiko bakezko geografia eta demografia oso bat.

Fabián Laespada

Artículo publicado en Aldaketa 16 (marzo 2011)